

**EBAZPENA, 2021eko otsailaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena; honen bitartez, indarrean dauden lan-poltsei dagozkien zerrendak argitaratzea xedatzen da, 2020an emandako zerbitzuen birbaremazioaren ondoren.**

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariak, 2013ko azaroaren 5eko Ebazpen bidez, Agentziaren 2011ko enplegu publikoaren eskaintzako lanpostu hauen lan-poltsak eratzea eta langileak lan-poltsa horietan sartzea onartu zuen: Plangintza eta Ebaluazioko arduraduna, Koordinazio Teknikoko arduraduna, Lankidetzako teknikaria, eta Genero Berdintasuneko teknikaria (2013ko azaroaren 20ko EHAA, 221. zk.).

Ebazpen horretan adierazten da poltsen kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakiak arautuko duela. Era berean, xedatzen du Erabaki horren 1. artikuluan ezarritako ezaugarriak betetzen dituzten eta lan-poltsetan sartuta dauden langileak EAEko Administrazio Orokorrean eta berorren Erakunde Autonomoetan bete dituzten zerbitzuen arabera birbarematuko direla.

Era berean, gaineratzen du lan-poltsetan daudenen puntuazioa 0,003 puntuz handituko dela aurreko urtean lanean emandako egun bakoitzeko. Horren ondorioz, egindako birbaremazioak 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) emandako zerbitzuak hartzen ditu barnean.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2020ko abenduaren 1eko Ebazpenaren bidez, Garapenerako Lankidetzako Teknikarien lan-poltsa handitzeko deialdiko (2020ko otsailaren 27ko Ebazpenaren bidez deitua) langileen lankidetzarako teknikarien lan-poltsan sartu zen.

Horrenbestez, honako hau

#### **EBAZTEN DUT**

1.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian indarrean dauden lan-poltsa propioen birbaremazioa egitea. Birbaremazio horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakiaren 1. artikuluan ezartzen diren ezaugarriak betetzen dituzten langileei 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitarteko aldi aipatu Agentzian emandako zerbitzuan lanean emandako egun bakoitzeko 0,003 puntuz handituko da.

2.- Emandako zerbitzuen birbaremazioaren ondoren geratzen den lan-poltsen ordena berria 2021eko otsailaren 22an jarriko da indarrean.

3.- Aipatu birbaremazioaren emaitzazko zerrendak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webguneko [www.elankidetza.eus](http://www.elankidetza.eus) helbidean argitara daitezen agintzea.

4.- Lan-poltsetan sartuta dauden langileei jakinaraztea lan-poltsak kudeatzeko zerbitzura egiten diren edo bertatik jasotzen diren deiak grabatu ahal izango direla, eta datuen aurka egiteko, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko eta datuak ezerezteko eskubideak egikaritu ahal izango dituztela, titulartasun publikoko datu pertsonalen fitxategiei buruzkoa den eta datuak babesteko Euskal Bulegoa sortzen duen otsailaren 25eko 2/2004 Legearen arabera.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren presidentearen aurrean, Ebazpen hau [www.elankidetza.eus](http://www.elankidetza.eus) helbidean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasi eta hilabeteko epean.

Gasteiz, 2021eko otsailaren 19a

  
**GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA**  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO  
**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**  
**PAUL ORTEGA ETCHEVERRY**  
**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARIA**